

**ERDI-AROKO EUSKAL IZENEN  
IDAZKETA (IV)**

Ostera Bizkai'ko lenen Jaunaren idazti bat aztertu nai nuke ikerketa lan oni asiera emateko.

Bizkai'ko Jaun ura Enneko Lopez izan zala gogoan izango dezu noski, arek, eta Tota bere emazteak, idatziazitako larruki bat aldizkari onen azkeneko zenbakian aurkeztu bait genuan. 1051'garren urtekoa zan larruki ura. Gaurko au 1076'garrenekoa da. Ain zuzen Tota andrearen animaren alde Millan Deunari emaitza bat egiteko idatzia, illa zuan ba ordurako Iñigo Loperena Bizkai'ko Jaunak bere emaztea.

Oso latera bikaiñean idatzia dago larruki au. Idazlea, Gulde-marus izan zan; apaizen bat eskierki.

Bertan agertzen diran toki-izenak, orduan Euskalerra zan Errioxa'koak dira, Bizkai'ko Jaunak Bizkai'tik ak ere esku aundia zualaren adigarri.

Ona emen izen oien zerrenda:

- BALLORIA. Baloria oni gaur Viloría esaten zaio, eta gaurko Santo Domingo de la Calzada'ren alboko auzotxo bat da. Araba'n ba degu beste Viloría bat, eta Nāparroa'n ere bada beste bat.

«Viloria», «Vitoria»-rekin aidetasun aundia duan itza da. Beti uste izan det nik Vitoria itz euskalduna dala. Itzaren buztuna, ORIA, euskalduna da zalantzarik gabe. Naiz erromatarren denboran ITURIA idatzi, guk betidanik ORIA esan diogu Gipuzkoa'ko ibairik aundienari. Oria izeneko errixka bat ere bada bere ibarrean, eta Oriu du izen, bere urek azkena bustitzen duten erriak.

VI Santxo errege Jakintsuak ere, Bitori'ko uria eraiki zuanean, NOVA VICTORIA eraikitzen zuala idatzi zuan. Ots! NOVA Victoria: Bitori BERRIA! Ezagutzen zuan nobait arek, antxe bertan, beste Bitori'ren bat: BITORI ZAARRA.

Ortaz gaiñera, bada Araba'n LAMINORIA izeneko ibaitxo bat, Entzi-Mendi'n jaiota Ega ibaieruntz dijoana. «Oria», «Ur Laisterreko Lats» edo baldin bada, a zer izen polita «LAMINORIA»! Gaztelera, «Río de Ninfas»!

Eta SORIA bera ere, ez ote da izen euskalduna? Inguru antxe egon bait zan, antziña, euskeraren muga. Antxe dago GARRAI ere, erromatarrek NUMANCIA birbataiatu zutena.

Ain zuzen, len aipatutako BALLORIA ari VILLA ORIA esaten dio 1087'ko larruki batek. ORI deritzan mendiaren izena ere ORIA izenaren senidea da. Ez da erreza «ORIA»k zer esan nai duan jakitea; eta zaillagoa da oraindik «ORIA» orren aurreko «BALL», «BIL», «BIT» eta «SO» oiek zer esan nai diguten jakitea: BALL-ORIA, BIL-ORIA, BIT-ORIA, SO-ORIA.

- NAIELA, gaurko Najera da, era ezberdiñetan idatzia agertzen dan erria: NAIERA, NAGERA, NAGGARA, NAIARA, NAGGERA, NAIELA, NAIARE; baita dokumentu bat berean ere! Euskalerra guziko Uri Nagusia izan-berria zan orduan Naxera.

- MAHABE. Ona emen aurreneko H'a. Bi itz datoz larru-

ki ontan H'z. Au, eta VIZKAHIE (jenitibu eran): «Enneko Lopez gratia Dei totius Vizkahie comes»: «Jainkoari eskerrak Iñigo Loperena Bizkai osoko kontea». «VIZKAHIE» orren H'az lengo batean mintzatu nintzan-da, aztertu dezagun gaur MAHABE orren H'a. Esan dezadan, ala ere, aitatu-berri dedan 1087'ko larrukian Bizkai'ren izena VIZKAIA, agertzen zaigula: «comite Lupo dominante Alavam eta Vizkaiam». VIZKAIA; «K»z, eta «H»rik gabe.

Mahabe Errioxa'n zegoan, Naxera'ren alboan, larruki ontako beste erri guztien antzera. Zalantzarik gabe bere izena, izen euskalduna da. Barnean daraman H ori ez ote da LL adierazteko?: Mahabe=MALLABE. Orrela, gaur ezabaturik dagoan antziñako Errioxa'ko MALLABE ura, gaurko Bizkai'ko MALLABIA'ren lengusu izango litzake.

- Larrukian datozten beste izenetatik, ORBITA, giza-izena, euskalduna da. Baita agian FONTEIZ toki-izena ere, naiz itxur'aldaturik egon; euskalduna bait da ITZ bere atzizkia, eta FON berriz, Errioxa'ko beste erri batzuen izenetan ere bada-gerkigu: FONZEA, FONZALETXE. Izen onen azkeneko ETXE ori euskalduna danik nork zalantzan ipiñi?

- CAMPROBIN (gaur Camprovín), CASTREGGON (gaurko Castegón, Naparroa'ko Castejon'en kide), eta, -itxuraz aldatutako euskalduna ez ba'da-, SCANGURRAN, jatorriz izen Keltak dira irurak. «Zeltak». Keltak bait ziran Errioxa'ra sartu ziran Berondarrak, edo, Errromatarren izkeran, «Berones» aiek.

- Larruki au, Iñigo Loperena'k eta bere semeek: Lope Enekorena'k, Garzia'k, Galindo'k eta alaba Mencia'k izenpetzen dute: «Ego igitur senior et consul Enneko Lopez, senior Lope Ennecones filius eius, et Garcia Ennecones, et Galindo Ennecones et domno Mencia germani eius». Ordurarte Naparroa'ko erregearen esanera agertu izan zaigun Iñigo Loperena Bizkai'ko Jaun au, Gaztela'ko Albontsa VI-aren serbitzura aurkezten zaigu dokumentu ontan.

«Jesukristo munduaren azkeneko ertzetaraiño errege dala, eta Arek ala naita Españi guziaren erregetza Albontsa printzi-peak artu dualarik»: «Regnante Domino nostro Jhesu Christo terra et polo eta sub eius nutu regnum totius Ispanie obtitente principe Adefondo», izenpetu zuan beintzat, larruki au. Ordu-rarte Nafarroa'ko erregea ipintzen zuan lekuko Eneko Loperena; emendik aurrera Gaztela'koa ipiñiko du beti.

Zergaitik? 1076'koa da larruki au. Urte ortan izan zan eraila Peñalen edo Len'go Aitzean Santxo Nafarroa'ko erregea. Bereala sartu ziran izkilluen indarrez Euskalerrian Aragoi'ko eta Gaztela'ko erregeak. iOtso eta deabru izan dala beti Euskalerriantzat Españi! Gaztela'ko Alfontso VI'ak, Errioxa artu zuan, eta dirudianez, lapurreta ortan Bizkai'ko Jaunak, Iñigo Loperena onek, lagundu zion.

Ez zion Iñigo Loperena'k ekintza beltz arri onturre aundirik atera. Berealaxe il bait zan; 1076'garren urte ortan bertan edo urrengoaren asieran.

Larruki ontan lekuko lez agertzen dan Lope Ennecones edo Enekorena semeak artu zuan Bizkai'ko Jauntza. Au ere Gaztela'ko erregearen serbitzari dakusgu; eta aitarekin batera, dirudianez, Errioxa'ren lapurketan Gaztelarraren laguntzalle izan zan.

Gaztela'ko erregeak, VI Alfontso'k, Naxera'ko eta Haro'ko jaundaritzak eman zizkion, Lope Enekorena oneri, beretzat eta bere ondorengoentzat. Gerontzean Bizkai'ko Jaunak Haro'ko konteak ere izango dira.

Gipuzkoa'ko eta Araba'ko Jaun ere egin zuan, baiña Lope Enekorena'k ez zuan bi Jauntza ospetsu auek bere sendiari betirako lotzeko duintasunik agertu.

«Len'go Aitzeko» Santxo erregearen erailketan ez ete zuten Iñigo Loperena Bizkai'ko lenen Jaunak eta onen seme Lope Enekorena Bizkai'ko bigarren Jaunak zer ikusirik izan? Badira baietz uste duten edestilariak.

Ain zuzen, Bizkaï'ko bigarren Jaun onen emaztearena izan-  
go da gaur degun bigarren larrukia. Emazte au, (izenez Tekla),  
Oka eta uri aren lurraldeko Jaun zan Diego Alvarez'erki lagun-  
du zien Diego Alvarez onek ere gaztelarrei, Lope suiñarekin eta  
onen aita Iñigo'rekin batera.

Euskalerrria ondatzeko, ez zaio beñere Españi'ri emen, Eus-  
kalerriaren barruan, laguntzallerik peitu.

Illa zuan senarra Tekla'k larruki au izenpetzerako. Izan ere  
bere senarraren animari laguntzeko egin bait zuan larruki ontan  
aipatzen dan emaitza. Alboniga'ko eliza eta eliz onen aberastasun  
guztiak. (Larrukia 1093'koa da. Egunik eta illik ez du aitatzen).

Ikus larruki ortan aipatzen diran toki-izenak:

ALBONICA	VIZCAHIE	URHO
CHENACA SURSUM	MANGULAR	BOLINUA SURSUM
BAGALGO	ERREKA	DORRONDUA IUSO
NARNIZ	ERREKA SURSUM	BARRUNGIA
UHEKELU	MUNNITUZ	BACHIO
URDONIZ	BERTANDONA	MUNKIA
VADIANO	BOLINIVAR	ARENZAZU
LAUKINIZ	LEONA	MURUETA
BARRITU	LARANGA	LECONA
UBART	URKIZA	KALAGURRITANE

Emaiegun orain zerrenda ontako izenik aipagarrienei ikus-  
talditxo bat:

- ALBONICA. «monasterium de Albonica». Gaurko Al-  
boniga da. Beste idazlan batean esan nuan orduango «monaste-  
rium» aiek, Euskalerrrian, elizak eta askotan baselizak zirala. Al-  
boniga'ko au ordea garrantzi aundikoa zala dirudi; izugarriak  
bait ziran bere aberastasunak. Iru aldiz esaten zaio larruki ontan  
Alboniga'ri ALBONICA, baiña beste bein... ¡ALBINA!

– VIZCAHIE, genitibu eran: «in territoria Vizcahie». «C» Tekla'ren idazti ontan. «K» bere aitagarrebarenean. «V»z bietan. «B»z beste askotan. Izen orren H'ari buruz ez astu lengoan esan nizuana: Ez dezula sekulan BIZKAI, «A» atzizkiarik gabe, «H»z idatzia ikusiko. «H» ori «Y» dalaren siñale. «BIZKAHIA»=«BIZKAIYA».

– Alboniga'ko «monasterium» aren basoak eta larreak izendatzen ditu ondorean larruki onek:  
URHO-. «H» ori «K» ote da? badirudi baietz. Bera, URHO, URKO izango litzake.

CHENNAGA SURSUM, KEÑAGA GOIKOA da iñolaz ere. ERREKA.- Bi erreka aipatzen dira emen. «Erreka apud Albonika» (Alboniga ondokoa) eta «Erreka sursum» (goikoa). Larruki au amaikagarren mendekoa dala gogora ekartzen ba'degu, ERREKA itza euskerara goiz sartu zala aitortu bearrean aurkitzen gera. Gaztelera sortu baiño len. Ori., ERREKA euskal itza ez dala eta laterazko «ribus» itzetik datorrela uste nai ba'degu. Azkue'k euskal itza dala dio.

– MANGILAR, BOLINUA sursum, BAGALGO, DORRONDUA eta NARNIZ, Bermeo-inguruan zeuden larreen izenak dira. Baita BARRUNGIA ere. Bada Araba'n BARRUNDIA izeneko aran polit bat; Bizkai'ko larre onen senide, izenez.

Ona berriz orain Alboniga'ko «monasterium» aberatz aren «decanias» edo maizter-erriak:

– UHEKELU. Zer adierazi izan nai ote zuan lumalari zar arek izen orren barrengo «H»aren bidez? «R» bat? UREKELU. «G» bat? UGEKELU, Maiz erabiltzen zan orduan «H»a «G»ren orde. Ala, garai artako dukumentu batean, Igeldo, Donosti'ko Igeldo, IHELDO agertzen da. Nere ustez oraingo ontan «H»a «R» degu: UREKELU. Itzaren azkeneko ELU ori Euskalerriko beste toki-izen batzuetan ere badakusgu, adibidez, Naparroa'ko BETELU izeneko errien azken-ertzetan, eta ez da oraindik bere zentzurik argitu.

- MUNNITUZ: MIÑITUZ irakurri bear da, erdiaroan Ñ bi NN'en bidez maiz idazten bait zan. Ala 759'ko larruki batean, AMUNNA, dakusgu, «Amuña»ren ordez eta MONNIA, «Moña»ren ordez. Bi izen auek emakume-izenak ditugu. Pedroso'ko Lekeimetxeko lekaime edo monjak. Euskaldunak biak; naiz Pedroso erdel-izena izan Euskalerra bait zan VIII mendean Oka-Mendiko lurraldea. Gaur Oka-Mendiak Burgos'ko probintzian dagoz.

«Ñ» adierazteko ugari erabilli zituan bi NN larruki onen idazleak. Onatx Lekaidetxe bereko beste lekaime batzuen izenak: «Donna», «Munnoza», «Mumadonna».

MUNIITUZ, Bermeo inguruan egongo zan. Ez da beintzat gaur-eguneko MUNITIBAR.

- BACHIO, (BAKIO), erri ezaguna da. Erdi aro artan «K» otsa maiz ematen zuten latiniaren erara «CH» izkien bidez. Baita «K»ren bidez ere. Zerrenda ontan bertan MUNKIA eta URKIZA «K»z ikusiko ditugu, eta BIZKAHIE «C»z.

- URDONIZ eta BERTANDONA ere ALBONIGA'ko «monasterium» sendo aren maizter-erriak ziran. Non egon zitezkean ez dakit. Ez noski Alboniga'tik urruti.

- LEONA eta LECONA, nere ustez erri bera dira: gaurko LEJONA. Bi giza-semeen jatorri-izen bezela datoz: «MONNIO MONIOZ de LEONA» eta «senior FORTUN SANGUEZ de LECONA». Orra or osteria «K» otsa «C»ren bitartez emana. Baña lentxeago «K» erabilli du idazle berak KALAGURRITANE idazteko: «Petrus Episcopus ecclesie Kalagurritane». Orra, baita ere Ñ bi NN'en bidez emana.

- VADIANO, «V» ta guzti, ABADIANO da. Onela agertzen da 1082'ko beste larruki batean: ABADIANO; eta 1051'ko batean, adjetibu lez, ABADIENSIS.

– UBART, nere aburuz, «UGART» da edo agian «URART». Mende bereko beste larruki batean badator URART zeritzan erri bat, gaur URARTE deritzana. Araba'ko erria da. Gure au Bizkai'koa da, baiña izen berdiñekoa.

Baiña UGART ere izan leike. Kukulla'ko burni-barren larrukian agertzen zaigu VARTE bat. Baiña «V» «U» bezela erabiltzen bait zuten orduan, edestilari batzuek VARTE ori UARTE irakurtzen eta idazten dute. UARTE ori arabarra da. Baiña 1082'ko larruki batek aipatzen digu Bizkai'ko UGARTE bat ere, eta aipatu... «H» ta guztiz aipatu ere: UARTE.

Badirudi, orduango oiturari jarraituz, «H» ori «U»ren eta «A»ren bitartean sartu bear zala: UHARTE. Ez ba. «T»ren atzean sartu zuan lumalari zar arek. UARTE. Orrela ibiltzen ziran, ortografizko arau guztietatik yare, orduango idazlari aiek. A! Bizkai'ko UARTE ura, gaurko Muxika da.

– Lope Enekorena Bizkai'ko bigarren jaunaren alargunak izenpetzen du gure larruki au: «Ego igitur domna Tecla comitissa»; eta baita bere seme-alabak ere: «Ego Didadaco Lopez (Bizkai'ko irugarren Jauna) et frater meus Sancio Lopez et meus cognatus senior Lope Gundissalvez et domna Tota eta domna Sancia et domna Tarasia meis sororibus». «Meae sorores» bear zuan, baiña artu dezagun ontzat ablatibu ori, garai artako ortografia orrela ibiltzen zan-da.

Ta, nola ez!, izenpetze ori Gaztela'ko erregea aipatuaz egiten da: «Adefonso rege imperante totius Ispanie», «Afontsa erregeak España osoan agintzen duala».

Euskalerriaren gaitzerako, Bizkai'ko Jaunak zearo Gazteleerriaren alde jarriak zeuden.

Larruki ontan bere buruari TECLA deitzen dion andre onek («ego igitur domna Tecla»). Ticlo deitzen dio beste batean: («Ego igitur domna Ticlo filia de senior Didaco Albaraz...cun



consensu domno meo comite Lope Ennecones» «Nik bada, Didaka Albarenaren alaba Ticlo andreak, Lope Enekorena nere senar kontearen baimenarekin...»). Bi aldiz idazten du gaiñera TICLO.

1079'garren epaillaren 14 da larruki au. Bizkai'ko Jaunaren Andre bat berak bere izena idazteko ortografiaz ain kolokan ibiltzen ba'zan, pentsa nola ibilliko ziran bera baiño beeragoko jendeak. Ez dala fiagarri erdiaroko idazkera!

Lope Ennecones, Bizkai'ko bigarren Jaun ori, Bizkai'ko, Araba'ko eta Gipuzkoa'ko Jaun bezela 1083'ko larruki batean agertzen zaigu: «Alfonsus rex imperante tota Hispania, comite Lope Ennecones in Bizkaia, et Alaba et Ipuzcua» (Ots: «H»rik gabe, BIZKAIA). Larruki onen bidez Araba'ko zaldun batek Kukulla'ko Milian Deunari, Zanbrana'n dituan ondasunak eskeintzen dizkio. Larrukiak, NANBRANA'ren orde, CEMBRANA dio. Ikus bertan aipaturik datozen beste erri-izen batzuek:

CEMBRANA  
RIPIELA  
VALLESOLA  
BIZKAIA  
ALAVA

IPUZCUA  
ARZAMENDI  
ARMENDECA  
HEARI

Ikus dezagun zer erakutsi dezakigun XI mendeko larruki ontako izen oiek:

- CEMBRANA, gaurko Zambrana da; Araba'ko erria, Ibero edo Ebro ibaiaren alboan; nekazari-lur aberatseko erria. Bere izena, zalantzarik gabe, euskalduna degu. Etimologi zaillekoa. «ZEN» Euskalerriko izen askotan agertzen zaigu: «ZEN-GOTITA», «ZENDOYA» eta abar. Eta, bear ba'da, baita ZENARRUZA'n ere. Badakit Zenarruza'ri ZIARRUTZA' ere esan oi zaiola. Baiñan zein ote da bi izenetan zaarragoa? Zenarrutza ala Ziarrutza? Euskal-fonetikan «E» maiz biurtzen bait da «J!» ZENARRUTZA = ZEARRUTZA = ZIARRUTZA?

Nork daki! 1082 larruki batek CINAURRIZA deitzen dio: «ab-bate domno Blasco de Cinaurriza».

Itzaren azkeneko ANA ori berriz, Araba'n beintzat edonun ikusi dezakegu. Oraingo etimologilariek, eta auen arten Koldo Mitxelena'k, latinezko «anus, ana, anum» dala diote.

Orrela, «ORDOÑANA», «Ordoñorena» izango litzake. Egia ote? Nork jakin! Gaur, guztia erromatar egitea modan da goan gauza da. Mitxelena ere latinezkoa degu. Eta baita Caro Baroja. Etimologigintza, beti ere, gauza labaiña da-ta, ni ez nintzake orrenbestera ausartuko. Batzuetan «ANA» ori badaiteke latinezkoa danik. SUBIXANA, MANDOXANA eta orrelako beste erri askoren izenak ez deritzait erromatar diranik.

Ez ote da euskerazko «ENA», latinezko «ANA biurtu? ANTON'ENA = ANTON'ANA?

– BIZKAIA, «H»rik gabe eta «K»z. IPUZCUA berriz, «C»z. ARAVA, «V»z, (beste batzuetan «B»z agertzen bait zaigu). «Alfonsus rex imperante tota Hispania, comite Lope Ennecones in Bizkaia et Alava et Ipuzcua». «Albontsa erregea Ispani osoan agintari, eta Lope Enekorena kontea Bizkai'n, Araba'n eta Gipuzkoa'n».

Bizkai'ko bigarren Jaun zan Lope onek, (eta leenago bere aita Eneko, Bizkai'ko lenen Jaunak), IV Albontsa oni Errioxa arrapatzen lagundu zielako eman zion errege onek Jauntza irukoitz ori Lope Enekorena'ri.

– ARMENDEKA, oraingo Armentia degu. Bi Armentia dira Araba'n. Bata Gazteitz-ondokoa; bestea Trebiño'koa. Armenteka au, Trebiño'koa da. Bost erataro agertzen zaigu Armentia erdiaroko larrukietan: ARMENTI, ARMENTEI, ARMENTEGUI, ARMENDIHI eta ARMENDEKA, lumalari atzerritar aiek euskal-izenak zeinien gaizki entzuten zituztelaren siniale zorrotza.

- ARZAMENDI, Araba'ko erriskaren bat genduan. Eze-reztua da aspalditik, eta non zegokean jakiterik ere ez daukagu. VALLESOLA eta RIPIELLA, ez dira, bear ba'da errien izenak, soro edo larreenak baizik.

- HEARI. Ona emen beste izen potxoloa! Gazteitz'en ondoan dagoan ALI dala dirudi. EHARI batzuetan agertzen zaigu, HEARI besteetan H-a tokiz aldatuaz. Heari ay benetan ALI ote da? ALI bera ez ote degu euskal-izena? ALLI bat bai bait da Naparroa'ko Larraun'en ere.

- 1083'ko larruki au izenpetzen dutenen artean bat Fortu gotzaia da: «Episcopus Fortunio in Alaba confirmans»: «Fortun Araba'ko gotzaia egiztatzaille».

Fortun au Armenti'ko gotzai ezagunetan, bigarrena da, leenagoko arabar-gotzaiek ez bait digute Armenti'n bizi ziranik esaten. Aurrenekoa, BELA jauna izan zan. 1062'ko larruki batean dakusgu, lenengo aldiz, bere izena: «Ego dno. Veilla regente alauensi ecclesia sedis armendehi»: «Ni bela Jauna, egoitza Armenti'n duan arabar-elizaren zuzendaria».

Bela noiz il zan ez dakigu. Baiña 1083'ko gure larruki ontan Fortun agertzen zaigu Araba'ko gotzai. Barruki ontan ain zuzen lenengo aldiz eta ez, «Enc. Genl. Ilus. del Pais Vasco'k oker dion lez 1085'ko beste batean.

Fortun onek merezi du aipamen bereizi bat: Bela gotzai zala, Araba Gaztela'ko erregeak, Albontsa VI'ak, artu zuan indarrez 1076'ean. Fortun gotzaia, ordea, Naparroa'ko erregeen zale eta gaztelarren etsai zan dirudianez, Naparroa'ko lekaidetxeen nagusitzapean ipiñi zituan beintzat, Gaztela'ko erregearen atzarretatik urruti, jabe ezagunik gabe zeuden eliz eta «monasterioak» eta errenta gutziak.

1088'an il zan, eta Kalagurri'ko gotzaia izan zan Armenti'ko gotzai izendatua: Pedro Nazar.

Baiña Armenti-elizbarrutia ezereztua eta inguruko gotzaie emana gelditu zitzaigun: Gobia'ko Arana, an bertan zegoan Balpuesta'ko elizbarrutiari erantsi zitzaion. Gipuzkoa, Iruña'koari (Ondarrabi, Irun eta Oyartzun Baiona'koak ziran). Deba ibaiaren arana eta Bizkai, Araba'rekin, Kalagurri'koari.

Bear ba'da, zatiketa ura Fortun gotzaiaren euskotartasuna zigortzarren egiña izan zan, Gaztela'ko VI Albontsa sorkaldeko euskalerraren jabe zala. Orrela, espaniarrei eskerrak beren gotzairik gabe gelditu ziran Araba, Bizkai eta Gipuzkoa'ren sarkaldea, eta orrela iraun dute XIX mendera arte.

Aize makurra izan dala beti, Euskalerrarentzat, egoaldeko aizea oro.

*Latiegi'tar Bixente*

# **BANCO DE BILBAO**

**100 urte baiño geiago bezeruen zerbitzuan**

ESPAIÑA'KO BANKO BAKARRA  
ERBESTEAN ETXE-ORDEZKOAKIN

**Ofizinak:** Karmen kalean, 7 - AMOREBIETA (Bizkaia)